



Trebakuntza 2008/1: DATAK, EGUNAK, URTEAK...

Udal idazki askotan datak oker idatzita ikusi ditugu (urtea, hilabetea, eguna...).

Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Lezon, 2005eko Ekainaren 13an*
2. **Lekeition, 2007ko irailak 25ean*
3. **Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren 6an izango da.*
4. **2005ko abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak.*
5. **Lekeition, 2007ko abenduaren 8*
6. **Aurten, Aste Santua 2.005eko martxoaren 19tik 24ra izango da.*
7. **2007 urtean ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko.*
8. **Abenduaren 12an, asteazkenez, egingo da bilera.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Hilabeteak beti letra xehez (minuskulaz) idatzi behar dira.
Ad. Lezon, 2005eko ekainaren 13an (eta ez **Ekainaren*).
2. Zenbakiak deklinatu behar badira, hilabeteari -aren gehitu behar diogu.
Ad. Lekeition, 2007ko irailaren 25ean (eta ez **irailak 25ean*).
3. Kontuz egunen zenbakiak deklinatzean!
Ad. Osoko bilkuraren hurrengo batzarra irailaren 6an izango da (eta ez **6ean*).
ONDO DAUDENAK: 1ean, 2an, 3an, 4an, 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 10ean, 11n...
GAIZKI DAUDENAK: **1an, 6ean, 11an...*
4. Kontuz urteen zenbakiak deklinatzean!
Ad. 2005eko abenduaren 7an hasiko dira herriko jaiak. (eta ez **2005ko*).
ONDO DAUDENAK: 2000ko, 2001eko, 2002ko, 2003ko, 2004ko, 2005eko...
GAIZKI DAUDENAK: **2000eko, 2001ko, 2002eko...*
5. Gutunetan edo antzeko idazkietan forma hauek erabiliko dira:
Ad. Lekeitionn, 2007ko abenduaren **8an** (eta ez **Lekeition... 8a*)
Ad. Lekeitioo, 2007ko abenduaren **8a** (eta ez **Lekeitio... 8an*)
6. Urteetan ez jarri punturik zenbakien artean

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Ad. Aurten, Aste Santua **2005**eko martxoaren 19tik 24ra izango da (eta ez *2.005eko).

7. Urtearen zenbakiaren ondoren “urte” hitza erabiltzen bada, derrigorrezkoa da puntua jartzea.

Ad. **2007. urtean** ez zen diru partidarik onartu euskara ikasteko (eta ez *2007 urtean).

8. Asteguna ere zehaztu behar baduzu, hiru modu hauek dituzu:

Ad. Abenduaren 12an, **asteazkena/asteazkenean/asteazkenarekin**, egingo da bilera (eta ez *asteazkenez).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edota gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrena arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org